

2. edizioa

# Baserritik mundura

## Esperientziak trukatzeko II. Unibertsitate Jardunaldiak Elikadura-burujabetza eta agroekologia: praktikoa oraintxe bertatik!

2018ko irailaren 21a. • 09:00etatik 17:30era

UPV-EHU, Zubiria etxeko Gradu aretoa. Agirre Lehendakaria etorb. 81. Sarriko-Bilbo

### Aurkezpena

Jardunaldi hauek Hegoa Institutuak eta EHNE-Bizkaia nekazarien sindikatuak garatzen duten *Elikadura-burujabetza eta agroekologia. Baserritik mundura: gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroaren bigarren edizioaren baitan kokatzen dira. Unibertsitateko komunitate osoari zein eragile sozialei irekita daude, eta helburua da gizarteari helaraztea ikastaroan sortu diren hausnarketak.

Horrenbestez, jardunaldien xedea sozializatorako eta eztabaidarako gune bat sortzea da, esate baterako, lurraldearen kudeaketaren, eragileen antolaketaren, jakintzaren berreskurapenaren eta feminismoaren alorrean sortutako esperientzietako hainbat protagonistarekin; gure inguruan lurraldeari lotutako elikadura sistema justuagoak, osasungarriagoak eta iraunkorragoak ari dira sustatzen.

### Metodologia: Tailer paraleloak

Tailer bakoitzean, gonbidatutako esperientzietako hizlariak beren prozesua azalduko digute, hiru galdera hauek oinarri hartuta: Zein izan zen abiapuntuko beharra? Nola garatu dute proiektuaren bidea? Zeinen artean edo norekin egin dute bide hori?

Tailer bakoitzean egindako lana osatzeko, eztabaida kolektibo bat egongo da. Horretan, ahalegina egingo da bertaratutako guztien esperientzietatik irakaspenak eta gakoak ateratzeko. Arratsaldeko saioan, tailer bakoitzeko hausnarketa nagusiak bateratuko dira.

### Programazioa

**09:00-9:30**

Parte-hartzaileei harrera

**09:30-10:00**

Aurkezpena eta jardunaldien azalpena

**10:00-12:00**

Esperientzien aurkezpenak bost tailer paralelotan:

- 1. Tailerra.** Lurralde antolamendua: basoa eta lurraldea
- 2. Tailerra.** Elikadura-burujabetzarako eragileen artikulazioa
- 3. Tailerra.** Nekazaritzako feminismoak
- 4. Tailerra.** Nekazarien jakituria berreskuratzea
- 5. Tailerra.** Identitatea, kultura, arrantza eta elikadura-burujabetza

**12:00-12:30**

Atsedena

**12:30-14:30**

Aurkeztu diren esperientziei buruzko eztabaida, eta hausnarketa nagusiak jasotzea

**14:30-16:00**

Bazkari agroekologikoa Sustraiak-ekin

**16:00-17:30**

Osoko bilkura, hausnarketak bateratzea eta jardunaldien amaiera

**Informazio gehiago, hemen:** Yeni García ☎ 946 013 894

**Izen ematea:** yenifer\_garcia@ehu.eus **Izen-ematea: doakoa – Plaza mugatuak**

**Bidal itzazue datu hauek irailaren 19a baino lehen:**

- Izen-abizenak → Erakundea → Helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa
- Bi tailer, lehentasun hurrenkeraren arabera

# Tailer paraleloak

Jardunaldietan landu nahi ditugun ardatz tematikoek zerikusia dute ikasleek, kurtsoan, beren lurraldeetan garatzeko aukeratu dituzten ikerketa-ekintza prozesuen ardatz tematikoekin. Ardatz horiek, gainera, Nekazarien mugimenduak estrategikotzat jotzen ditu elikadura-burujabetzaren printzipioak gauzatzeko. Hona hemen ardatzak:

## 1. tailerra: Lurralde antolamendua: Basoa eta lurraldea

Tailer honen xedea da aztertzea zer aukera eskaintzen zaizkigun lurraldea kudeatzeko, elikadura-burujabetzaren printzipioak oinarri hartuta. Era horretan, aztertuko dugu zer borroka/lehia dagoen landu daitekeen lurraldearen erabilereari dagokionez, basogintza-ereduaren eta basoaren kudeaketari dagokionez eta baso-guneak eta ingurune hiritarrak artikulatzeko aukerei dagokionez. Halaber, ikusiko dugu nola hurbil daitezkeen basoari buruzko hausnarketa horiek hezkuntza-guneetara (arautuak zein ez arautuak). Horretarako, hauek izango dira gurekin:

**Gaindegia:** irabazi asmorik gabeko elkarte da; behategi gisa osatuta dago, eta Euskal Herriko ekonomiari eta gizarteari buruzko ezagutza eta iritzia sustatzeko xedea du. Euren proiektuetako bat aurkeztuko dute; EHNE-Bizkaia sindikatuarekin batera koordinatzen duten proiektua da, eta helburu hau du: Lurraldea antolatzeko plan orokorrak sortzeko prozesuak demokratizatzea, eta horietan elikadura-burujabetzako printzipioak txertatzea.

**Kolore guztietako basoak:** baso autoktonoaren bitartez, bizitzen ari garen basogintza krisitik irteteko ekimen soziala. Ekimen honen testuinguruan, Lurgaia Fundazioak proposamen bat aurkeztuko du Bizkaian kontserbazio basoak lortzeko, eta, Ekologistak Martxan elkartearen eskutik, naturatik hurbil dagoen silbikulturaren eremuan aplikatzeko moduko elkarlaneko esperientziak aztertuko ditugu.

**Plisti Plasta Espazioa Naturan:** 3 eta 6 urte arteko haurrak naturan hazi daitezzen eta jolas dezaten sortutako proiektua da, Europa iparraldeko baso-eskoletan inspiratuta dagoena.

**ESKUTUKO HAZIAK:** Baserritik Mundura ikastaroko ikerketa-taldea. Anoeta (Gipuzkoa) herriko basoen kudeaketa ikertzen ari dira.

## 2. tailerra: Elikadura-burujabetzarako eragileen artikulazioa eta dinamizazioa

Tailer honetan, hala eragile publikoen nola pribatuen artikulazioaren bitartez eta zuzeneko salmentaren edo tokiko komertzioaren bitartez, nekazarien ekoizpenen komertzializazioa eta kontsumoa sustatu duten esperientzietan jarri nahi izan dugu arreta. Horretarako, hauek izango dira gurekin:

**Marc Badal:** hamabost urtetik gora daramatza agroekologia eta landa-garapenaren alorreko ikerketa- eta dinamizazio-lanetan, eta, horiez gainera, abandonatutako mendi-nukleoak berreskuratzeko zenbait proiektutan eguneroko zereginak egiten ditu. Nafarroako Pirinioetan horren inguruan dagoen problematikari buruzko panorama orokorra aurkeztuko digu.

**Urduñako trantsizio agroekologikoko prozesua (konfirmatzeko zain):** Bizkaiko Urduña herrian, 2003az geroztik, agroekologiaren bidetik, elikadura estrategia bat garatzen ari dira elikadura-burujabetzaren alde. Orduz geroztik, dinamizazio plan handi bat dago martxan. Egun, eskualdeko elikadura kontseilua sortzeko prozesuan daude.

**Labore Bilbao:** Bilboko proiektu kolektibo bat da, eta zuzenean lotu nahi ditu elikaduraren bi eragile funtsezkoenak: ekoizleak eta kontsumitzaileak.

**BAZTERRAK:** Baserritik Mundura ikastaroko ikerketa-taldea. Espartza Zaraitzu haraneko (Nafarroa) elikadura-burujabetzarako eragileen artikulazioa ari da aztertzen.

### 3. tailerra: Nekazaritzako feminismoak

Tailer honetan, landu nahi dugu nola txertatzen diren edo nola lotzen diren proposamen feministak eta agroekologikoak; nola aldatzen edo mantentzen diren botere-harremanak prozesu agroekologikoak eta elikadura-burujabetzakoak sortzen direnean. Halaber, emakumezko nekazarien egoera ezagutzera emango dugu, eta balioan jarriko ditugu elikadura-burujabetzaren bidean egin dituzten ekarpenak. Horretarako, hauek izango dira gurekin:

**Euskal Herriko Mundu Martxa:** Emakumeen Mundu Martxa nazioarteko mugimendu bat da; 2000. urteaz geroztik ari da antolatzen eta emakumezkoen eskubideak eskatzen. Euskal Herrian hainbat erakunde, kolektibo eta pertsona feminista batzen dituen plataforma da. Plataforma pixkanaka joan da elikadura-burujabetza txertatzen bere aldarrikapenen artean, bai eta Martxetan emakumezko baserritarrei protagonismoa ematen ere.

**Sindicato Labrego Galego:** sindikatu hau honela definitzen da: mundu solidario batean, iraunkorra izango den nekazaritza labregoa lortzeko abian dagoen proiektu bizia. Horrenbestez, Vía Campesinako kide da, eta sindikatuaren Emakumezkoen idazkaritza erreferente bat izan da genero ikuspegia txertatzeko bai sindikatuan bertan zein Vía Campesina barruan.

**Paulo Freire nekazaritza unibertsitatea:** hezkuntza proiektu honen nahia da landa-garapenerako erreferentziak sortzea. Batetik, garapen horretan dimentsio historikoa —nekazarien kultura— gal ez dadin lan egiten dute ikerketa eta transferentzia programen bitartez, eta, gainera, ikuspegi kritiko batetik egiten dute, era horretan, ekintzailea den nekazarien kultura berritik datozen prestakuntza-eskaerei erantzunez. Tailer honetan, emakumezko nekazarien jakituria berreskuratzeko egin duten lana aurkeztuko dute.

**SORGINATXURRAK:** Baserritik Mundurako ikerketa talde bat da, eta Euskal Herrian emakumezko nekazarien jakituria berreskuratzeari buruzko ikerketa ari dira egiten.

### 4. tailerra: Nekazarien jakituria berreskuratzea

Tailer honen bitartez, hausnartu nahi dugu nekazarien prestakuntza praktikoari buruz; etengabe-ko prestakuntzaren ildotik, nekazari eta abeltzainen arteko prestakuntza sareak sortzeari buruz, nekazarien jakituriaren transmisioari buruz zein belaunaldi-erreleboari buruz, hori baita landa-ingurunearen erronka handietako bat. Horretarako, hauek izango dira gurekin:

**Labayru Fundazioa:** 1977an sortu zen fundazio hau euskal hizkuntza eta kultura ikertu, sustatu eta dibulgatzeko xedearekin. Euskal Herriko atlas etnografikoa sortzeko prozesua azalduko digute, eta nekazarien jakinduria tradizionala berreskuratzearekin lotutako edukietan jarriko dute arreta.

**Arabako sagar barietateen berreskurapena:** Aramaixoko Sagardogileen Elkarte (ASE) buru duen proiektua da, eta Hazien sarearekin elkarlanean ari da. Inguru hartako sagar barietateak katalogatu eta berreskuratu nahi dituzte proiektu honen bitartez. Tokiko barietate horiek urteetan mantendu dira, bertako nekazarien praktikei esker.

**Paulo Freire Nekazaritza Unibertsitatea:** hezkuntza proiektu honen nahia da landa-garapenerako erreferentziak sortzea. Batetik, garapen horretan dimentsio historikoa —nekazarien kultura— gal ez dadin lan egiten dute ikerketa eta transferentzia programen bitartez, eta, gainera, ikuspegi kritiko batetik egiten dute, era horretan, ekintzailea den nekazarien kultura berritik datozen prestakuntza-eskaerei erantzunez.

**Soziologia eta Nekazaritza Ikasketen Institutua (SNII):** 90eko hamarkadan sortu zen Kordobako Unibertsitatean. Agroekologia eta elikadura-burujabetzako prozesuen alorrari buruzko ikerketak egin, horri buruzko prestakuntza eman eta hori sustatzen du, Estatu espainiarreko zein Hego Ameriketako hainbat sarerekin lotuta. Nekazarien jakituria berreskuratzeko egin duten lana aurkeztuko dute.

**HIFAK:** Baserritik Mundurako ikerketa talde bat da, eta Aiaraldea ibarrean (Bizkaia) sagarraren kultura berreskuratzeari buruzko ikerketa ari dira egiten.

## 5. tailerra: Identitatea, kultura, arrantza eta elikadura-burujabetza

Tailer honen helburua da arrantzara hurbiltzea, arrantzaren sektorea gure herriaren paisaia kulturala sortzeko funtsezko eragile gisa ulertuta. Halaber, arrantza industrialaren ordezeko alternatiba bideragarriak eskaini nahi dira. Bukatzeko, emakumezkoek arrantzan izan duten zeregina agerian jarri nahi da. Horretarako, hauek izango ditugu gurekin:

**Yesmina Mascarell:** Valentziako Unibertsitate Politeknikoko ikertzailea da, eta emakumezkoen eta arrantzaren arteko harremana aztertzen ari da, Gandiako arrantzaleen kofradiaren kasua oinarri hartuta.

**El Palmarreko arrantzaleen komunitatea (Valentziako albufera):** proiektio historiko handia duen arrantzale komunitatea da, eta ekosistemaren kontserbazioan arreta jarritz eta ingurumen inpaktua txikituz kudeatzen du lurraldea. Guztiz artisauak diren teknikak erabiltzen ditu, eta arrantza eskaeren bitartez kudeatzen dutenez, gai da itsasoaren baliabideen aurrean mugak jartzeko.

**Marina Monsonís:** «De la cocina de rancho a la paella congelada» liburua aurkeztuko digu. Itsasoarekin zerikusia duten arrantzaleen eta sindikatuen borroka kontatzen dituen liburua da. Horretarako, hurbileko arrainekin prestatutako errezetak erakusten ditu, guztiak ere La Barceloneta auzoan bizi diren, bizi izan diren edo lan egiten duten pertsona eta familiek prestatuak. Kontakizuna 30eko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte iristen da.

**BASORDAKO GONAGORRIAK:** Baserritik Mundura ikastaroko ikerketa-taldea; Lemoizko (Bizkaia) arrantzaren iragana, oraina eta etorkizuna ari dira ikertzen.

Antolatzaileak:

Finantzaketa:

